

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2014ko urtarrila • 287. alea

PLAZA BARRIXA
1830



MBAYE GOGOAN
Kulturartekotasunaren jaia

GABONAK ARGAZKITAN



Zela egin maittasuna (bi punto)



Eneko Beretxinaga Unai Txurruka

Kaixo polittori!

Zelan, dana ondo? Ni, dudan. Hastia tokatzen jatanero nahiko kezka edukitzen dot zertaz arritu; ohi bezela, agenda hartu eta egutegixan begira jardun dot.

Otsaila badator, motxetik, eta, itxuraz, hotzetik. *Esku hotz, bihotz bero.* Bihotza berotze aldera, San Valentin dalako eguna izango da. Edo patrika berotzeko ote da? Enotsake jatorrixan daukan arrazoi kontsumistari erreparatu nahi, saltzen doskuen *maittasun erromantikuari* baino. Maittasuna bizitzako sentimendu garrantzitsuenetako bat bada, uste dot tartetxo bat hartu bihar gendukela eta gogoetatxo bat egin. Nik ezer gutxi dakitt horretaz, baina gure bizitzan eta bizipozian sekulako eragina daukala esango neuke. Maittasuna eraikuntza kulturala da, ikasten dogun zerbait; beraz, maittatzeko modu asko aurkittu gainkez (maittasunak). Guri erakutsi doskuena beste pertsona kon-

“Maittasuna eraikuntza kulturala da, ikasten dogun zerbait”

kistatzian datza (konkista=dominatzea). Dominatzaile eta dominatu, norbera be bestiaren menpeko izan bihar da, laranja erdixa lortuz, pertsona bat osua izango ez balitz bezela!

Norbere bizitza beste norbait asetzera mugatzian dimentsiñua ikaragarri hazten da emakumien kasuan; oin gutxira arte beren zeregin garrantzitsuena emazte ona izatera bideratu da.

Teoria edarra izanagaittik, praktikan, afektuan, mila kontraesan eta buruahuste izango dittugu. Ez al da hori bizitza? Saiatu gaittezen, ba, sentimendu horrek identifikatzen, eta, maittasuna egittetik, maittasunak egittera pasa.

Lagun Oskarrek abesti baten diñuan eran gaur da *“errepikatuko ez den eguna/ unek gozatuz ta lagunduz laguna/ egiten da maittasuna”*.

Aupa hil!

Ba bai, Eneko. Maittasun erromantikuan oinarritzen diran harremanak bizitza guztirako izateko bokazina izaten dabe; monogamian eta bikotien arteko dependentsia extremuan oinarritzen dira. Eta eredu heteronormatibuan sakontziaz gain, emakumiek gizonen biharrak asetu bihar dittuen ideia behin eta berriz erreproduzitzen dabe gainera, modu sutilau edo esplizituaguan.

Arrazoa daukazu. Maittasuna eraikuntza kulturala da, ikasten dogun zerbait. Eta zentzu horretan, bestelako maittasun eredu justu eta parekidia “egittek” gakua deseraiuntza eta desikakuntza prozesuetan daguala uste dot. Ikasi eta barneratu dogun horren inguruan gogoeta egin eta maittatzeko eredu barrixak eraikitzeo prozesuetan zehazki.

Guzti hori baina idatzi dotena baino askoz konplexuagua da. Izan be, ezin ukatu neike harreman homosexualetan be modu hone-tan maittatzan ez dogunik.

Erroka konplexu-er praktika konplexuekin erantzun bihar. Baina lehenengo nahi izatia biharrezkua da. Eta hori ez da lan erreza.

“Kontraesanez betetako bidia da maittasun eredu ez-erromantikuak sortzia”

Kontraesanez betetako bidia da maittasun eredu ez-erromantikuak sortzia. Baina, aldi berian, kontraesan horrek adierazten doskue maittatzeko modu hori zein puntutaraino daukagun barneratuta.

Mari Luz Esteban mediku eta antropologa feminista basauriarrak diño maittasunian neurrixak hartzen jakin bihar gendukela *“Mendirakaskoarekin eta sokekin babestuta goazen bezala, maittasunean ere babestu behar dugu, ondo pasatzeko baina onik ateratzeko”*. Beraz, badakizu, maittasuna “egittian”, hobe betiko preserbatibuak jartziaz gain, preserbatibo “(anti?)kulturalak” be jartzen hastia!

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarteak. Errabal kalea 15-1., PK 27 – 20590 Sorraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Leire Iturbe eta Egoitz Unamuno **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta L. Iturbe **Publizitatea:** Egoitz Unamuno **Diseinua:** Inigo Uribebebarria **Maketazioa:** Oier Larreategi **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekolizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



Gutunak

Ainhitze **Lurrari berea dena bueltatzea**

Elizburu Badira hilabete batzuk bi auzolagunek gure familien zabor organikoaren ardura geure gain hartu eta etxe-ostean dagoen lur sailtxoan konpostagailua jarri genuela. Poliki-poliki ongari bihurtzeko bidean doaz gure hondakinak.

Ione Alberdi Orditik balore berezia hartu du lursailtxo horrek. Plazerra da zaborrari beste begi batzuekin begiratu, landu eta lurrari opari moduan bueltatzea.

Alvarez Ostera, oztopoak ere badira. Guretzat tristeena pertsonon zikinkeria lurtean barreiatuta ikustea da, plastikoak, txakur-kakak, zigarro-mutxikinak... zikinkeriaz betetako zabor-poltsa izan da azkena, konpostagailuaren parean, plast!

Tristura eta haserrea sentitzen dugu hau ikusita, gure gizartearen isla baita inguruneari ematen diogun tratua. Gure buruari harriak botatzea da, bizia ematen digun amalurrari heriotza bueltatzea.

Asko daukagu egiteko, bitartean, egin dezagun ahal duguna ahal dugun ondoen, zaindu eta maita dezagun lurra, gure amalurra. Besterik ez bada, pixkanaka gure zaborraren ardura har dezagun eta barreiatzeari laga.

Lurra eskertuko digu, eta etorkizuneko belaunaldiek ere bai.

Soraluze **2013ko uzta bikaina**

Zero Zabor 2103an Gipuzkoan, 5 udalerritik 27 izatera pasa ziren gaika biltzen zuten herriak. Gipuzkoan 3 udalerritik 1ek gaika biltzen ditu hondakinen %70 baino gehiago.

Taldea lazko urtarrean, hondakin organiko guztia herrian bertan ongari bihurtzen zuten herri bakarra zegoen Gipuzkoan, Orendain. Abendurako 8 ziren, eta gainerako hondakin guztiak ere gaika biltzen dituzte.

Bestalde, atez ateko bilketa eraginkorra zeukaten herriak zikinkeriz eta arratoiz beteta zeudela ziotenek, pertzepzio hori "subjektiboa" dela esatera pasa behar izan dute, izan ere, errealitatea gehiegi hazi da gezurrekin estaltzen jarraitu ahal izateko.

Bilketa sistemen arteko eztabaidan ere urratsak eman dira. Gero eta agerikoagoa da 5. edukiontzia sistemak "berziklatzeko" ez duela balio, ezarri den herrietako bilketa datuek hala dela erakusten dute. Soraluzen, ia urtebete igarota, oraindik ez daukagu daturik.

2013. urteko lorpenak aipatzerakoan, ezin dugu ahaztu azaroan GHK-keta errauste planta eraiki behar zuten enpresek lortutako akordioa, zeinari esker, bertan behera gelditu zen erraustegia. Ondorioz, errausketaren eta zaborraren aroari amaiera eman zaio Gipuzkoan.

Zero zabor aroan barneratzen hasi gara, eta hondakinak arazo eta kutsadura iturri izatetik, baliabide bezala kudeatzera pasatuko gara.

OHARRA:

Hurrengo alea otsailaren 28an kaleratuko da. Alerik jaso ezean Pil-pilean-era abisatu 943 751304 telefonora edo aldizkaria@pilpilean.com helbidera. Alea faltan duzuenok Iratxo goxodendan jaso ahal izango duzue.

Bittartetik



Gure esku

Eskua elkarri ematea laguntasunaren, adostasunaren, konpromisuaren eta elkartasunaren seinale da, eta 50,000 lagun eskuak elkartzea eta herri oso bat ados jartzea ez da zer nahi dugunaren adierazgarri bat, nola nahi dugunarena baino, hau da, guk geure erabakiak hartzea.

Giza katea egitea proiektu integratzaile baten parte da, non esku bakoitza garrantzitsua den eta eskualde bakoitza ezinbestekoa den. Proiektu honetan Soraluzek 800 esku eskaintzea nahi ditu, giza olatu baten parte izan dadin. Arrazoi honengatik, katea egitea ez da batzuen edo besteen gausa, denon ardura da, herri baten etorkizuna ez delako batzuen edo besteen erabakia, denon erabakia baita.

Katalunian iparraldetik hegoalderainoko kate bat egin zuten, guk, ordea, mendebaldetik ekialderainokoa egingo dugu, 4 haizetara aldarrikatzeko zein den gizarte mugimendu honen nahia: erabakitze eskubidea.

Eta bai, mugimendu sozialari buruz ari naiz hizketan hainbeste esku elkarlanean ikustean, lotura politikoetatik urrun, ikusten dudana jai bat baita; herriaren indarraren aldeko ospakizun bat, herriak erabakitze eskubidearen aldekoa.

Guztiok batera, Durangotik Iruñara, eskuz esku.

“Kromo bildumaren helburua klubarekiko ilusioa piztea izan da”

Migel Angel Cenzual

Sorako kromo bildumaren sustatzailea



Migel Angel Cenzual, Sorako lehendakariordea.

Migel Angel Cenzual (Eibar, 1959) Soraluze Futbol Elkarteko lehendakariordea da 2010az geroztik. Udan oporretako lagun baten bitartez izan zuen kromo bildumak egiten zituen enpresaren berri, eta bi aldiz pentsatu barik, Soraluze Futbol Taldeko bilduma prestatzeari ekin zion.

Ekimenak sekulako oihartzuna lortu du herrian eta herritik kanpoko medioetan ere landu dute gaia. Bi astetan, 3.000 paketetik gora saldu dira. Jokalari eta entrenatzaile guztien irudiak erabili dituzte horretarako, guztira 202. Helburua klubarekiko ilusioa piztea izan da.

“Bilduma historikoa izango dela esatera ausartuko nintzateke”

Espero al zenuten ekimenak izan duen harrera?

Astebetean 3000 paketetik gora saldu dira eta 6000 saltzea espero dugu. Bagenekien herriko gazteenen artean sekulako ilusioa piztuko zuela, hori izan da hasieratik ekimen honen helburu nagusia. Dena dela, nagusien artean izan duen eraginak harritu nau gehien. Nire semeari kromoek ideia komentatu nionean “frikki” bat nintzela esan zidan. Orain, ostera, preferenteko jokalaria eta entrenatzaileek

zerrendatuta eramaten dituzte falta zaizkien kromoek izenak. Kanean ez dabil beste konturik, gainera, telebista, irratia eta prentsa gurera etortzea ere izugarri polita izaten ari da.

“Kromoak salmenta jaitsi arte izango dira dendetan, baina gero ere eskatu ahalko dira”

Zela bururatu zitzaizun kromoek ideia?

Oporretan lagun bati entzun nion kromoak egiteko asmoarekin zebiltzala eta bi aldiz pentsatu barik harremanetan jarri nintzen kromoak ekoizten dituen Cromogal enpresarekin, guk Sorakoak egiteko gai ginela banekielako. Lan askoren ostean, ez naiz damutzen duela lau hilabete hartutako erabakiaz.

Lagatzekotan ere izan zineten...

Jokalarien argazkiak ateratzera Burgoseko argazkilari bat bidali zuten eta domeka argitsu batean 200 lagun batu ginen Ezozin. Bi astea Cromogaleko arduradunak deitu zidan esanaz 70 argazki inguru erretu zeudela. Dena bertan behera lagatzekotan ginela, kanean jendea galdezka hasi zitzaigun “bildumak noizko?”. Azkenean, etxeko kamera hartu eta banan-banan atera genizkien argazkiak jokalariei.

Diru-iturri garrantzitsua izango da?

Askok pentsatzen dutena baino gutxiago. Kalkuluen arabera, 40-45 euroko kostua du albuma osatzeak, baina guk Cromogalekin etekinak salmenten arabera proportzionalki banatzea adostu dugu. 4500 pakete salduz gero %5a jasoko dugu, 6000rekin %10a. Gehienez, 600 euro etekin izango ditu Sorak, gastuak berriz zero.

“Iraganeko izarren bilduma osatzeko ere proposatu didate”

Badago eperik bilduma amaitzeko?

Kromoak salmenta jaitsi arte izango dira dendetan, eta, bestela, Cromogalen eskatu daitezke. Enkarguak e-postaz egin behar dira, comercial@cromogal.com helbidean.

Esperientzia errepikatzeko asmorik?

Bilduma historikoa izango dela esatera ausartuko nintzateke eta zaila izango da errepikatzea. Hala ere, Sorako iraganeko izarren albuma egiteko komentatu didate, herriko kirol elkarte guztiena... animatzen denari nik pasatuko dizkiot kontaktu guztiak.



Gure Esku Dago ekimenaren aurkezpena otsailaren 22an

Herritar talde batek bultzatuta Gure Esku Dago ekimena sustatzeko duen taldea sortu dute herrian. Ekimenak Goierriko bailaran sortutako Nazioen Mundua ekimenean du jatorria eta "euskal nazioak erabakitzeke duen

eskubidearekiko atxikimenduak batu eta Euskal Herri osoan mugimendu herritar zabala sortzea" du helburu. Aurten gainera, ekainaren 8an, Durango eta Iruña lotuko dituen 123 km-ko herritar kate ikusgarria osatu nahi dute. Horretarako, 45.000 herritar batu beharko dituzte. Kalkuluen arabera 300-400 soraluzetar beharko dira Soraluzeri Bergara ingurura dagokion tartea betetzeko.

Aurkezpena herrian

Otsailak 22, zapatua, eguerdiko 12:00etan aurkeztuko dute Soraluzeko Gure Esku Dago ekimena herriko antzokian. Datozen hilabeteetan herrian egingo dituzten ekimenen berri eman-go dute bertan.

Motzean

Soraluzetarrak Gureak-eko bazkarian

1981az geroztik Eibarko Auzokoak elkarteok bazkari bitartez omentzen dituzte urtero Gureak lantegiko langileak. Urtarrilaren 11n egin zuten aurtengo ospakizun jaia Erdi Bana eta Urkizu-gain elkarrean, eta bazkarian ehun lagunetik gora batu ziren, tartean zenbait soraluzetar.



De Cos eta Oregi nagusi 'Herriz Herri' Argazki Rallyen Ligan

Carlos de Cos-ek 'Herriz Herri' Argazki Rallyen Ligan lehen saria eskuratu du, eta Fernando Oregik bigarrena. Berrogeita hamar parte hartzaile izan dira guztira, eta denek bat egin dute "argazkilaritza praktikatu eta ikasteko modu on bat dela" iritzita. Hartara, hurrengo rallya Azpeitian gauz ospatzen den "Gau txoria" izango dela eta, bertara gonbidatu nahi dituzte argazkilaritzarekiko zale-tasuna duten edota ikasteko gogo zauden herritarrak.



Ekimenarekin bat egin duen herritar taldea. Argazkia: Fernan Oregi.

FotoNotizia



Nerea Elizburuk jaso du 6000 euroko saria

Bizikaleko merkataria eta ostalariak joan den abenduaren 31n egin zuten Gabonetako zozketa eta Nerea Elizbururi egokitu zaio 6000 euroko diru-saria, urte osoan zehar elkarrean osatzen duten komertzioetan gastatzeko.

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Javier Alberdi

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

EUSKO LABEL

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Jubilatuetak taberna kontratatzeko deialdia zabalik

Udalak Itxaropena Jubilatuen Etxeko taberna zerbitzua kontratatzeko deialdia zabaldu du. Eskaintzak aurkezteko epea urtarrilaren 29an hasi eta otsailaren 10era artekoa izango da, biak barne. Kontratazioa arautuko duen baldintza-agiria www.soraluze.net webgunean, "Kontratazioak" atalean dago ikusgai.

Garbitzaileen greba hitzarmena eskatzeko

Villar garbiketa enpresako zazpi langileak greba egin zuten atzo eta herenegun. Enpresa horrek herriko eraikin publikoak garbitzeko ardura du eta martxotik aurrera estatuko hitzarmen ereduaren ezarriko diela jakinarazi diete langileei. Langileek uste dute eredu hori ezarri gero lan-baldintzak nabarmen okertuko dizkietela eta hitzarmen propioa eskatzen dute. Salatu dutenez enpresak lehenago jasotzen zuen diru kopuru berajastzen du udaletik, baina estatuko ereduarekin soldatak %40ra arte jeitsi ahalko dizkie. Sindikatuek eta udal gobernuak bat egin dute langileen aldarrikapenarekin.



Auzipetuen hitzaldia

Otsailaren 20an, eguenean, 19:00etan, hitzaldia eskainiko dute herrikoen eta gazteen aurkako auzietan auzipetutako bi lagunek. Azken hilabeteotan epaiketetan bizi izan dutenaz eta etorkizunari begira dituzten asmoen berba egingo dute bertan. Epaiketok politikoak direla salatzen LIBRE mugimenduak antolatutako ekimena da.

Harrera Elkarteak zozketa antolatu du

Joan zen urtean abiatu zuen bere jarduna Soraluzeko Harrera elkarteak. Lehenago Euskal Herri mailan sortu zuten Harrera elkarteak bezala, gartzelatik edo erbestetik datozen euskal herritarrei asistentzia eskaintzea du helburu, "alde batetik, tramite burokratikoak kudeatzen laguntzea eta, bestetik, beharizan larrian ailegatzeko diren pertsonen gizarteratze duina eskaintzea".

Lanak biderkatuta

Iazko urrian Estraburgoko epaitegiak Parot dotrina bertan behera laga zuenetik hainbat preso kaleratu dira, eta horrek biderkatu egin du Harrera elkarteak egin beharreko lana. Egoera horri aurre egiteko diru iturri nagusia bazkidetzak diren arren (26 herrian), oraingo eta etorkizuneko beharizanei aurre egiteko tarteka zozketak



Harrera elkartearen parte hartzen diharduten herritarrek.

antolatuko dituzte, herriko produktuz osatutako saskiarekin urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean egingo duten moduan. Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera euren laguntza eskaintzen diharduten herritarrei.

7.300 euro lortu ditu Misisio Taldeak adin txikiko egoitza bati laguntzeko

Soraluzeko Misisio Taldeak 7.300 euro lortu ditu aurten familiarik ez duten edota tratu txarrak jasan dituzten Argentinako adin txikiko aterpetxe bati laguntzeko. Gaztañarretan goxoak saltzen ekin zioten dirua batzeari eta azoka egunean 1.800 euro batu zituzten. Abenduan eginko tonbola solidarioaren bitartez etxean eginko 126 panpina eta herriko merkatariek eskainitako produktuak zozketatu zituzten eta hiru egunetan saldutako errifekin, 5.500 euro batzea lortu zuten. Lerroon bitartez eskerrak eman nahi dizkiete ekintzokin bat egin eta prestaketa lanetan jardun zuten guztiei. Adierazi

dutenez, irailean ekingo diote berriz ere proiektu solidarioak babesteari.



Misisio taldeko kideak errifak saltzen.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

KULTURARTEKOTASUNA

Elkartasun mugimendutik kulturartekotasunaren jaira

Otsailaren 8an beteko da urtebete Mbaye hil zela. Haren ostean sortu zen elkartasun mugimendua gogoratu eta kulturartekotasunaren aldarri bihurtuko dute otsailaren 7an herriko antzokian egingo den ekitaldia.



Elkartasun batzordeko kideak Mbayen anaia eta lagunekin. Argazkia: Fernan Oregi.

Mbayeren heriotzaren ostean herrian sortu zen "elkartasun mugimendua gogoratu eta indar hori kulturartekotasunaren aldarri bihurtzea" da elkartasun batzordearen eta Ndank Ndank elkarrekin antolatuko duten ekitaldiaren helburua. Horretarako, musika eta janari senegaldarrak uztartuko dituen jaialdia prestatuko dute antzokian (egitarauaren xehetasunak eskuineko taulan). Otsailaren 7a da aukeratutako eguna, Mbayeren heriotzaren egunaren bezpera. Antolatzaileek iazko ekimenetan euren hondar alea eskaini zuten ehundaka soroluzetarrrez gain, inguruan bizi diren senegaldarrak ere gonbidatuko dituzte. Mbayeren senideek ere gogo onez hartu dute ekimena eta bertan izango direla jakinarazi dute.

Familiari laguntza hileru

Mbayren alargunari eta hiru seme-alabei laguntzeko batu zen diruaren bidalketaren berri emateko ere aprobetxatu nahi dute urteurrena batzordekoek. Hilero 300 euroko laguntza bidaltzen dute Senegalera bankuen bitartez, alargunaren izenean dagoen kontura eta bera da zuzenean laguntza hori jasotzen duena. Ndaye izeneko herrixkan bizi diren berrogei senitartekoen oinarritzko beharrak asetzeko erabiltzen dute dirua.

"Mbayeren senideek gogo onez hartu dute jaia"

EKITALDIA

Senegaldarren musika eta janaria

Otsailaren 7ko jaialdia arratsaldeko 20:00etan hasiko dute Mbayeren heriotzaren osteko mugimenduaren inguruko datu eta irudi batzuk proiektatuz. Ondoren, *kora*-instrumentu afrikarra- entzuteko aukera izango da Enekora taldeak eskainiko duen kontzertuan. Taldea Eneko Larrañaga zestuarrak zuzentzen du beste hiru musikariren laguntzarekin, eta *Kora Izpiak* izeneko diskoan jasotako kantuak joko dituzte. Kantu batzuk eurak konposatutakoak dira eta beste batzuk kantu tradizionalen bertsoiak. Kantuotan euskara eta beste hizkuntzak nahasten dituzte, eta bizitzaz, etorkinen sentimenduez, naturaz... berba egiten dute. Antolatzaileen esanetan musika lasaia da, patxadaz entzutekoa. Gainera, *Afrika* eta *Hego Amerikan* ateratako irudiak ere proiektatuko dituzte musika emanaldian zehar.

Kontzertuaren ostean, jaialdiari amaiera emateko, *yassa*, senegaldarren ohiko jakia, dastatzeko aukera izango da antzokian bertan. Sarreran *borondatea* jasoko dute ekitaldiaren antolaketak eragindako gastuak ordaintzeko.



Enekora taldea.

“Mbayeren senideek asko eskertu dute jasotako elkartasuna”



MAMADOU SARR
1978, Dionewar

Mamadou Bergarako Ndank Ndank Senegaldarren Lagunen Elkarteko lehendakaria da eta euskaldunen eta senegaldarren kulturartekotasuna bultzatzeko lanean dihardu, Senegaleko lankidetzaren egitasmoak lantzearekin batera. Lehenengo momentutik parte hartu zuen Mbayeren familiari laguntzeko mugimenduan.

Urtebete geroago ze irakurketa egin daiteke Mbayeren heriotzaren ostean sortu zen mugimenduaz?

Harrigarria izan da Soraluzen erakutsi duzuen elkartasuna. Mbaye pertsona ezaguna eta maitatua zen, eta horrek dudarik barik eragina izan zuen ekimenaren arrakastan. Euskal Herrian bizi diren Mbayeren senideak eta Senegalen daudenek ere asko eskertu dute jasotako elkartasuna.

Zelako ikuspegia dugu Europarrok Afrikarikiko?

Neurri handi batean historian zehar mendebaldeko herriek Afrikarikiko izan duten jokaera: esklabutza, kolonialismoa... dira gaur egun Afrikak bizi duen egoeraren eragile nagusiak. Afrikaz proiektatzen dizkiguten irudiek -gerrateek, pobreziak, ustelkeriak, etabar- paternalismoa bultzatzen dute. Baina haratago begiratu behar ge-

nuk. Afrikan sekulako kultur aberastasuna dago eta guk hemen alde batera lagata dauzkagun balore asko indarrean daude: elkartasuna, familia, optimismoa, errespetua eta abar.

Zer jakin behar genuke Senegalez?

12 miloi biztanle ditu eta herrialde errepublikarra da, demokratikoa. XVI. mendetik XIX. mendera bitartean indarrean izan zen esklabutza. Kalaian hainbat etniatako hizkuntzak entzuten dira: wolof, serer, diola, fula, tuklor, eta abar. Baina hizkuntza ofiziala frantsesa da, kolonia frantsesa izan zelako. Erljio sinesmenen aldetik ere anitza da: gehiengo musulmana (%84a), kristauak ere badira (%6a), eta gainerakoak animistak. Ekonomiari dagokionez, jarduera nagusia arrantza da.

Zelakoa da Mbayeren jaioterria?

Mbayeren jaioterria Ndiayen da (Louga eskualdea). Barnealdeko nekazal herri txikia da eta ez dago bertara iristeko errepiderik. Ortu txikiak eta animaliak dituzte. Berrogeitamaren bat pertsona biziko dira bertan, familia berekoak guztiak. Senide asko Euskal Herrian bizi dira, eta hilero diru-laguntza bidaltzen diete bertara.

“Hemen lortutako dirua familiari laguntzeko erabiltzen dute”

Euskal Herrian zenbat senegaldar egon daitezke gaur egun?

2601 zeuden errolaturik 2010eko datuen arabera. Seguruena zenbaki hori handiagoa izango da orain. Gehienak gizonak dira eta Bizkaian bizi dira.

Zelakoa izaten da Europarako bidaia?

Denetarik dago. 2000-2006 urte bitartean senegaldar asko etorri ziren gurera arrantza lan kontratuekin. Beste batzuk, urte askoren buruan dirua bildu eta bisatua lortu dute. Azkenik, txalupaz etorri diren asko ere badira. Azken horien bidaia

garestia, luzea eta oso gogorra da. Asko bidean hiltzen dira, txalupa hondoratu delako edo bidaiako baldintzak oso gogorrak direlako. Bidaiak mafiek antolatzen dituzte. Askotan ez dute hona iristerik lortzen, eta gainera, urte askoan bildutako dirua galtzen dute.

“Senegalen elkarrekiko errespetua oso hedaturik dagoen balorea da”

Zertan lan egiten dute hemen?

Senegaldar gehienak arrantzan dihardute, baina asko dabilta kaleko saltzaile gisa ere. Kale saltzaile gehienak Louga eskualdekoak eta Dakarrekoak dira. Egunero egiten dute lan, goizetik gauera arte. Askok ez dute paperik eta ezin dute euren herrialdera bueltatu.

Gehienek jaioterria itzultzea dute gogoan?

Gehiengoak beraien herrialdera itzultzeko desira dute. Askok Senegalen familia daukate. Hemen lortutako dirua familiari laguntzeko, etxe on bat eraikitzeko eta hainbat kasuetan negozio bat eraikitzeko erabiltzen dute.

Senegaldarrekiko dagoen pertzepzio zabaldua da oso erraz integratzen zaretela?

Aurrez aipatu dugun bezala, Senegalen etnia asko bizi dira elkarrekin. Senegalen elkarrekiko errespetua oso hedaturik dagoen balorea da. Beharbada horregatik ikusten gaituzue horrela.

Legedia gero eta gogorragoa da paperik bario etorkinendako.

Senegaldarren artean batzuk paperak dituzte eta beste batzuk ez. Paperik gabekoendako egoera gogorragoa da, baina oraingoz errolatzeko arazorik ez dago eta ez dugu inori osasun zerbitzua ukatu zaion berririk jaso.

Iritzia



Joxean Iñurrieta

Badugu zer ikasi

Mbayeren heriotzaren urteurrena heltzera doanean bere portaera eredutzat jarri nahi dut giza harremanen arloan. Ezagutu genuenok berehala nabaritzen genuen bere izate apal, umila eta ez inbasiboa. Bakoitzari espazio zabala ematen zigun eta horrelakoetan geure onena ateratzeko gai garela frogatu genuen.

Gure arbasoak Ameriketara joan ziren bezala datozkigu orain etorkinak, bitzita hobe baten bila. Senegaldarren familia kontzeptua gurea baino askoz zabalagoa da, elkartasuna haruntzago daramate.

Oparitu nagusiak geu izan gara. Badaukagu giza harremanetan harengandik zer ikasi, etiketa edo eparirik gabe entzuten eta hainbat hobe Mbaye bezala irrifartsu azalduko bagina. Saia gaitzen.


Abortatzeko baldintzak erabat gogortuko ditu Espainiako gobernuak, eta abortatzeko zirrikituak mugatuko ditu. Bi izango dira baldintzak: bortxaketa bat jasan izana, edo haurdunaren osasun fisikoari edo psikikoari kalte larria eragitea. Malformazioak ez dira zuzenean abortatzeko arrazoi izango.

Zer iruditzen zaizu abortuaren legea aldatzeko proposamena?



Manuel Calderon

Normala ikusten dut adin txikikoek gurasoekin eta medikuekin kontsultatu beharra. Kasu berezietan bakarrik abortatu behar litzateke, ze orain bitarteko asko daude prebentziorako.



Edu Alvarez

Neri gaizki iruditzen zait proposatzen dutena. Datorrena mantendu ezin baduzu edo nahi ez duzuna bada, zertarako izango duzu? Kontradikzioa iruditzen zait jaio gabekoengatik horrenbeste kezkatzea eta jaiotako askori ez laguntzea.



Olatz Goiburu

Ni aurka nago, atzerapauso bat dela iruditzen zait. Abortatu ahal izatea eskubide pertsonala da, eta inork ezin du emakumea behartu edo epaitu hautu bat edo bestea egitera. Ni egoera horretan suertatuko banintz gustatuko litzaidake erabaki ahal izatea.



Virginia Iriondo

Oso gaizki. Golpera 30 urte atzera egitea da. Ni gogoratzen naiz lehen Londresera joaten zirela abortatzera. Zeintzuk? Ba dirua zeukatenak, orain hori erabaki nahi duteanek bezala. Emakumeak berak erabaki behar du zer egin.

Lehiaketa

Zein da?



Saria:
Sora Futbol Taldeko
10 kromo pakete

Aurreko aleko erantzuna

Iker Jauregi, gaztaina saltzailea.

Irabazlea



Eider Unamuno

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea etara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidal ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Agenda

PELOTA

Gaur, 20:00etan Aranen
UDABERRI SARIA

Santamaria – Aburuza
Iparraldeko ordezkariak

EUSKAL HERRIKO LIGA

Aldape – Hernaniko ordezkaria

FUTBOLA

Zapatua 1, 16:30ean Deban
Amaiak Bat – Sora (Erreg. Pref.)

Domeka 2, 16:00etan Unben

Eibartarrak – Sora (Erreg.)

Zapatua 1, 18:30ean Azpeitian
Ikasberri – Sora (Jub.)

Domeka 2, 16:30ean Ezozin

Sora (Inf.) – Eibartarrak

Zapatua 1, 10:00etan Almenen

Arizmendi – Sora (Kad. Nesk.)

Preferentea igoera fasean bigarren
Azken jardunaldian Erregional Pre-
ferenteak 1-0 garaitu du Orioko eta es-
kuratutako hiru puntuei esker Igoera
fasean bigarren sailkatu da, Ordizia
den lehenarekin 34 puntura berdindu-
ta. Bihar Amaiak Bat taldearen zelaian
lehiatuko dira. Debakoak Sora baino bi
postu beherago daude, puntu bat gu-
txiagorekin.

FRONTENISA

Inoizko frontenis txapelketa parte
hartzailleena

Hogeitamalau bikote lehiatu ziren Ga-
bonetako IV. Frontenis Txapelketan, ho-
rietatik zazpi herrikoak eta gainerakoak
Hego Euskal Herriko lurralde guztietatik
eta inguruko komunitatetatik etorri-
takoak. Finalean, Xabi tolosarra eta Edu
gasteiztarra 21-9 gailendu zitzairen Patxi
durangarra eta Candi ermuarrari.



Atxotegi eta Bolinaga lehenenak Euskal Herriko Ohorezko Ligan

Hiru partidu jokatu dituzte eta hiru-
retan garaile izan dira, azkenekoan
Markinako Arrieta-Kastillo bikoteari 22-
11 irabazita. Garaipenoi esker, binakako
Euskal Herriko ohorezko ligan lehenak
sailkatu dira. Asteburu honetan me-
rezitako deskantsua izango du bikote
soraluzetarrak. Banakakoan Aldape ere
sailkapeneko buru da, ohorezko ligako
lehen bi norgehiagokak irabazita. Bi-
har, Soraluzeko ordezkaria eta Herna-
nikoa buruz buru arituko dira Aranen,
20:00etatik aurrera.



Bolinaga eta Atxotegi bikote dira Ohorezko Ligan.

Laskurainek aldaketako artrosia du eta ebakuntzaren zain dago

Pelotan jokatu gabe lau hile egon eta gero, al-
daketako artrosia duela iragarri du Laskurai-
nek. Minekin 2011ko abenduaz geroztik aritu dela
eta irailaren 24an jokaturako San Mateo torneoko
partidan "lehiaketa alde batera utzi" eta "minak
ondo aztertzea" erabaki zuela adierazi du. Me-
dikuek aldaketako artrosia duela eta artrosia ge-
ratu ez baina bere garapena moteldu dezakeen
ebakuntza egiteko aukera duela jakinarazi diote.
Momentuz "saltoka eta korrika ez aritzea" gomen-
datu diote eta itxuraz, zaila ikusten dute frontoi-
tara itzuli ahal izatea.



Xabier Gallastegi Soraluzeko XVII. Sarian lehiatuko da

Soraluzeko Kirol Elkarteak 23 urtetik beherako txirindulari gazteentzat antolatzen
Sduen 27. lasterketa otsailaren 23an (domeka) jokatu da. Parte hartzaileek 118
kilometroko ibilbidea egingo dute, goizeko 9:45ean Estaziño kaletik abiatu eta San
Andres auzoan amaituko dute froga, 12:30ak inguruan. Iaz debutatu zuen Xabier
Gallastegik herriko sari nagusian eta aurten ere Debabarrena taldea ordezkatzeko
arituko da, afizionatu mailan.

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Sento Ana, 13 - 1 esk.
Etelano: 943 75 17 82 Fax: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

'Asier eta Biok' eta 'Suite Habana' filmak otsaileko karteldegian

Udaleko kultura batzordeak "Ostegunetako pelikula" egitasmoa jarri du abian, herritarrei ikusentzunezkoen arloko produkzioak ikusteko aukera eskaini asmoz. Urtero seina filmeko bi ziklo antolatuko dituzte, negu-udaberrian bata eta udazken-neguan bigarrena. Arduradunen esanetan egitasmoak ez dizkio atek ixten zine komertzialari, baina bideratuagoa egongo

da produkzio independenteagoetara. Oraingo honetan pelikulen lehen aukeraketa eta antolaketa kultura batzordeak hartu du bere gain, hala ere, udalaren asmoa da egitasmoari jarraipena emango dion lan-taldetxo bat sortzea. Filmak ostegunetan emango dira, hamabostean behin, 21:00etan antzokian. Lehendabiziko zikloa ondorengo pelikulek osatzen dute:

Otsailak 13	Asier eta Biok
Otsailak 27	Suite Habana
Martxoak 13	Alardearen seme-alabak
Martxoak 27	Amaren eskuak
Apirilak 10	Laburmetraia gaua



Jaioberriei irakurtzeko ipuina

Mari Domingi eta Olentzero Amalurraren Opariak izeneko ipuina argitaratu zuten abenduan Pil-pilean eta Kukumixok, Soraluze

kooperatibak emandako laguntza baliatuta. Ipuinaren irudiak Pablo Galarraga ilustratzailearenak dira eta testua, berriz, Maite Kintanillak, Egoitz Unamunok eta Tere Guenetxeak osatu dute. Egileen esanetan "Mari Domingi eta Olentzeroren figura Soralezerekin lotzeko bidean emandako beste pauso bat da ipuina".

Jaioberriendako opari

Ipuinaren alerik gehienak abenduaren 24an banatu bazituzten ere, beste ale mordoxka bat gorde dute udalak urtean zehar jaiotzen diren umeen etxetara bidaltzeko. Beraz datozen hiru edo lau urtetan, jaiotzen diren umeek liburua jasoko dute opari etxean.



Ipuinaren egileak.

Kultur agenda

Otsailak 3, astelehena

SAN BLAS EGUNA

11:30ean opilen bedeinkapena

12:30ean lehiaketa Plaza Barrixan

17:00etan opilak eta kafesnea jubilatuetan

19:00etan ikastaroa helduentzat

Otsailak 4, martitzena

SANTA AGEDA BEZPERA

Musika Eskolako ikasleak, 18:30ean

Ezoziko Ama abesbatza, 19:30ean

Ant: Musika Eskola eta Ezoziko Ama Abesbatza

Otsailak 5, eguaztena

UMEENTZAKO SAN BLAS OPIL

TAILERRA

Arratsaldeko 17:00etan eta

18:00etan, ludotekan

Ant: Parrandan ludoteka eta Jubilatuen Elkarte

Otsailak 8, 15 eta 22

MAKROBIOTIKA HASTAPENAK

Ikastaro teoriko praktikoa

Ibaieder elkartean

Izena emateko: Belarrak eta Salon

Informazioa: 635191352

Otsailaren 10etik 22ra

PINTURA ERAKUSKETA

Angel de la Torreren margo-lanak

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Otsailak 12

EUSKAL ARATOSTEEN AURKEZPENA

18:30ean, Antzokian

Ant: Euskal Aratosten Asanblada

Otsailak 14, barixakua

KONTZERTUA

Damu Dot (Mallabitik), Ekinozio

(Eibartik)

Eta Love Cans (Suizatik)

22:00etan, gaztetxean

Ant: Soralezeko Gazteria

Otsailak 22, zapatua

ANTZERKIA

"Guernica 1913". Banarte Antzerki

Taldea.

20:00etan, Antzokian

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696


TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

Zorion agurrak




Begoña Goenaga
Zorionak amama!
Aupa rubia redio!
Etxekuen partez.



Sabina Eizagirre eta Nahia Beristain
Urtarrilak 14 eta 25 urtiak betetzen ditzuzelako, muxu haundi bana etxekuen partez.




Alain Lopez
Urtarrilak 20xan 8 urte!
Zorionak gurasoen partez, asko maite zaittugu!



Imanol Agirre Arrillaga
Urtarrilak 20xan 10 urte!
Zorionak zure lehenengo hamarkadan! Muxu asko familixian partez!



Unai Laskurain
Urtarrilak 20xan 4 urte haundi!
Zorionak lkerren partez!



Hodei Valdivieso Argarate
Urtarrilak 9xan 10 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat maite zaittugunon partez.



Xabat Deza
Abenduan 27xan 10 urte!
Zorionak eta muxu haundi bat Argateko familixian partez!



Nerea Atxotegi
Urtarrilak 18xan 15 urte!
Zorionak polittori eta muxu haundi bat etxekuen partez!



Unai Calles
Otsailak 7xan
Zorionak hirukote eta muxu goxo-goxuak, familixa guztian partez!

Enara eta Amaia Agirre
Urtarrilak 10ian eta 22xan



Peio Aranzeta
Urtarrilak 21ian 8 urte!
Zorionak txapeldun!
Koldo, Joanes eta etxeko danon partez besarkada haundi bat!



Lorea Azkona Iñarra
Urtarrilak 29xan 9 urte!
Zorionak printsesa, patxo haundi bat etxekuen partez.



Junzaitxetxera
Zuen itzuleraren zain jarraituko dugu...
famiariaren partez!



Aurkene eta Onintze Lopez de Calle
Abenduan 8xan eta urtarrilak 16xan urtiak bete ditzuzelako, Zorionak eta muxu haundi bat etxekuen partez!



Aitziber Mayo
Otsailak 13an urtiak betetzen ditzuzu!
Zorionak guapisima!
Laster guretzako denbora izango dogu!



Ander Elizburu
Zorionak polittori!
Muxu haundi-haundi bat eta kili-kili pila, maite zaittugunon partez!

Jaiotakoak eta hildakoak



Aya El Fellah
Oihane eta Galder Garmendia Galarraga
Aran Trebiño Lindelmann



Nazaria Alberdi Oruesagasti
Maria Nieves Arzuaga Erle
Maria Luz Placencia Aldazabal
Juan Maria Altube Errazti
Gloria Guenaga Arriola

Irazarki laburrak

☎ • Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke
689 207 241 (Karmen)



PAULINO GOENAGA
1930-11-16 / 2013-1-11

"Betiko gure bihotzean, asko maite zaitugu!"

Etxekoak, familia eta lagun guztiak



Iturria: Teresa Eguren

59ko San Blas eguna

Elurra ari zuen 1959ko otsailaren 3an, San Blas egunean. Usadioak agintzen zuen moduan lagun talde hau dotore-dotore jantzi eta San Blas opilak harizko trapuetan batu eta gero bedeinkatzera eramateko irten ziren kalera. Elizara bidean, erretratu atera zuten Plaza Barrixan. Argazkixan soralezetarrak ez ezik, eibartarrak be agertzen dira: Arrietarrak, -Errotabarri baserria zeneko senideak- hain zuzen. Horrek erakusten du San Blas eguna Debabarreneko zenbait herritan ospatzen zela, eta

gaur egun, oraindik, Elgoibarren, Eibarren eta Soraluzen San Blasak egiteko ohitura mantendu dute. Gainera, sasoi hartan, San Blas egunak Kandelaria eguna zuen aurrekari moduan, otsailaren 2a, eta egunotan ohikoa zen umeek kandela bana eramatea eskolara, ikastetxeko fraile eta monjek bedeinkatu eta pizten laguntzeko. Ondoren, argizaria gastatu arte etxean gordetzen zituzten; ustez, ekaitzetatik babestu eta urteko txar guztiak erretzen laguntzen zutelako.

Argazkian, ezkerretik eskumara:

Goian: Teresa Eguren, Maria Dolores Pujana eta Maria Dolores Izagirre.

Behean: Arrate Arrieta, Maria Jose Arrieta eta Dolores Pujanaren ilobak.




LUISA ESNAOLA ZUBIZARRETA

2013KO ABENDUAREN 8AN HIL ZEN,
97 URTE ZITUELA

"Eskerrik asko hileta-elizkizunetara etorri eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi"

Familia



IÑAKI RUIZ ARANA

MENDIAN ZENDU ZEN
2012KO OTSAILAREN 11N
II .URTEURRENA

"Zauden tokian zaudela, zinena zinelako, maite zaitugu"

Etxekoak

M.A.H., S.L.
Tailerrak



Dekoletajeko
piezen ekoizpena

Tel: 943 75 30 22; Fax: 943 75 30 88
Mendiola industrialdea 14; 3. eraikina
23 P.K. 20590 Sorluze



IZAGUIRRE
Igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289



- Makina bereziak
- Lerro automatikoak
- Estankotasunaren kontrola



943 75 18 91 • Mendiola industrialdea 14, Sorluze



PASCUAL CHURRUCA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORLUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

laibi
ELECTRICIDAD

Mendiola Industrialdea, 13
20590 SORLUZE (Gipuzkoa)
Tel. 943 75 12 69 • 616 168 227
Faxa 943 75 23 41
gabiondo@laibi.net • www.laibi.com

Aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako tornilluak

T. 943 75 17 36 / 1803
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Sorluze

Aratustietan argazkiak
ateratzeko asmoa duzu?

Bidali zure argazkiak aldizkaria@pilpilean.com edo plaentxia@pilpilean.com helbidera



asier ETA biok


Otsailak 13, osteguna
21:00etan Antzokian



SORALUZKO
UDALA
Nafarroa Garaia

Ostegunetako pelikula
egitasmoaren barruan

**GURE
ESKU
DAGO**



AURKEZPEN EKITALDIA

Otsailak 22, zapatua,
eguerdiko 12:00etan
herriko antzokian

Soraluzeko Gure Esku Dago